

2

U
nitateaEGIPTO,
NILO IBAIAREN OPARI!

Hor behean dituzun esaldion artean, batzuek egia diote, eta beste batzuek gezurra. Egia bada, jarri E ezkerreko koadrotxoan, eta gezurra bada, jarri G.

- ☐ Alexandriako antzinako liburutegia, nazioarteko ikerkuntza zentro handiena eta garrantzizkoena zen.
- ☐ Erre egin zuten, futbol zelaiak eraiki nahi zituztelako.
- ☐ Egiptoko gobernuak, Alexandriako liburutegi berriak antzinako liburutegiak izan zuen garrantzia izan dezan, liburuak eskatu dizkiete munduko herriei.
- ☐ Liburuez gain, hainbat kulturatako haurren irudiak ere eskatu dituzte.
- ☐ Euskal Herriko hainbat udalerrik ehunka liburu bidali dituzte.
- ☐ Liburuak itsasontziz eraman dituzte Kantauri itsasoan barrena.
- ☐ Liburutegi horretako planetariumean unibertsoak planetak eta izar guztiak jarri dituzte.
- ☐ Liburutegian 3.500 liburu eta disko daude.

